

Zelan ospatzen dituzte gabonak munduko beste herrialde batzuetan?

Gabonak mundu osoan ospatzen dira, eta herri guztiek dituzte haien ohiturak.

Alemania

Alemanian, abenduaren 6an hasten dira Eguberrietako prestakizunak, normalean: etxeak apaintzen dituzte, eta gailetak egin.

Adibide bat jartzearen, fruituzko panpin txikiak dira apaingarrietako bat. Horretaz aparte, umeei leihoan ipintzen dituzte beren eskutitzak, Christkind-i zuzenduta, Jesusen aingeru mezulariari, alegia.

Eta nola ahaztu jengibreko etxeak, horrexegatik baitira famatuak alemaniarrek!



Australia

Australian, ohiturazko afarietan, ez dira sekula faltako indioilarra urdaiazpikoarekin eta "plum" pudina. Uda-garaia izanik, australiar batzuek aire zabalean egiten dituzte afariak; ospe handia dute, esaterako, Sydneyko Bondi hondartzako festek.

Melbournen, aldiz, ohitura ezaguna da gabon-kantak abestea, "Gabon kantak kandelaren argira" deituriko gauean.



Ameriketako Estatu Batuak (AEB)

AEBtako hainbeste film ikusita, seguru asko mundu guztiak ezagutzen ditu Estatu Batuetako ohiturak. Festa asko izaten dira. Han, ohitura zaharra da mihura landarea: bi pertsona, mihuraren azpian topatuz gero, muxu eman behar izaten diote elkarri.

Baina, horrez gain, pontxea edo eggnog-a hartzen dute. Ba al dakizue nork eramaten dituen opariak bertara gaboneta? Noski! Santa Claus bere elur-oreina magikoekin. Baina ezin da ahaztu bere emazteak eta opariak sortzen laguntzen dioten iratxoek asko laguntzen diotela. Gainera, AEBtik gureganatu dugu gaur egun Euskal Herrian modan dagoen usadio (ohitura) bat: "Secret Santa" edo "Lagun Ezkutua" delakoa.



Ekuador



Ekuadorren badago gabonak ospatzeko ohitura. Makil bat xaboiarekin igurtzi egiten da, eta makilaren puntan opariak jartzen dira.

Umeak makilan gora joan behar dute opariak hartzeko, eta labaindu (irristatu) egiten dira.

Familiak 24ko gauean biltzen dira, elkarrekin oilaskoa edo indioilarra afaltzeko. 31ko gauean, berriz, urte zaharra irudikatzen duten panpinak ateratzen dira kalera eta urte berria iristearekin batera su ematen zaie panpinei. Dantzak eta festa eguna argitu arte luzatu daitezke.

